**bihotzdun enpresak**
**Caritas Gipuzkoa**

Enpresa-mundua ez dago bere jarduera garatzen den gizarte-errealitatetik kanpo, eta jakitun da egoera zaurgarrian dauden pertsona eta familiak garatzeko eta gizarteratzeko prozesuei laguntzeko aukera duela.

Enpresa bazterketa-egoerekiko sentikorra dela jakitun, CARITAS GIPUZKOAk **Bihotzdun Enpresak** programa jarri du abian.

Ekimen hau CARITAS GIPUZKOAk bultzaturiko gizarteratze eta laneratze prozesuetan parte hartu nahi duten enpresa txiki zein handiei zuzendua dago. Lankidetza funtsezko ezaugarria da gizarte bidezkoago eta solidarioagoa sustatzeko.

CARITAS GIPUZKOArekin elkartasuna, justizia, errespetua eta berdintasuna bezalako balioak partekatzen dituzten enpresetan, **Erantzukizun Sozial Korporatiboko** ekintzak bultzatzea da **Bihotzdun Enpresen** helburua.

Nola bideratu daitezke Erantzukizun Sozial Korporatiboko ekintzak?

- CARITAS GIPUZKOAn lan-prestakuntza eta trebakuntzako ibilbidea bete duten pertsonak kontratatuz.
- Enpresetan praktikak egitea erraztuz.
- Elkarrekin prestakuntza eginez.
- Lankidetza-hitzarmenak sinatuz.
- Pertsonei eta/edo familiei zerbitzuak (azpiegiturak, erakundearen sustapena, ostatua, publizitate-espazioak, inprimategia…) edo laguntza materialak eskainiz.
- Boluntario korporatiboa sustatuz: lan-orduen eskaintza hainbat arlotan laguntzeko (konpainia egin, osasuna, teknologia berriak, etab.).

Ahaleginak batzea emaitzak biderkatzea da. **Bihotzdun Enpresen** eskutik —enpresa eta CARITAS GIPUZKOAren arteko lankidetza—, laneratzeko zailtasunak dituzten pertsonei zuzendutako lan eta prestakuntza-aukerak sortzen dira.

CARITAS GIPUZKOAren **Bihotzdun Enpresak** ekimenean parte hartzea apustu bat da, erronka bat, itxaropena; lankidetza-proiektu berritzaile bat. Eragile ekonomikoak gizarte-ongizatearen garapenean inplikatzeko beste modu bat.

Eta jakina, kolektibo guztiei gizarteratzeko aukerak eskaintzen zaie, eta enpresek gizarte bidezkoago, solidarioago eta integratzaileago baten alde duten konpromisoa indartzen duen gizartea eraikitzen ere laguntzen dute.